

Nahia Rodriguez Amundarain

B maila • 1 aipamena

Nire izena Nahia da. Ormaiztegikoa naiz eta 15 urte ditut. Idatzi hau, neure egunerokoan sentitzen ditudan muga horiek guztiak paperean islatzeko saiakera izan da, kasu jakin baten inguruan jardun banaiz ere. Izan ere, guztiok sentitzen gara modu batean edo bestean mugaturik eta muga horietako batzuk hausteko asmoz eginikoa da idatzi hau. Beraz hemen duzue Aske.



ASKE

1987ko urtarrilaren 16a

Urtea hasi besterik ez da egin, eta nirea ez da izan urtea hasteko modurik zoriontsuena. Zerua kopeta grisa duten laino goibelez josia dago, nire arimaren moduan. Eskutitza behin eta berriro irakurtzen ari naiz sinistu ezinik. Horrela mintzatzen zait Zuhaitz eskuan dudana eskutitz honetan:

“Inoiz izan gabeko sentimendua azaleratzen zait zure izena entzutean, gertu zaitudanean. Eta inoiz izan gabeko sentimendu hori desagertzeko beldur naiz. Inola ere ez zaitut mugatuko, ordea.

Duela asko hasi zen gure artekoa eta ez dakit aurrerantzean bizitzak zein nolako momentuak eskainiko dizkidan, baina orain arte bizi izandakoen artean ederrenak zure ondoan igaro ditut. Orain, agur esateko ordua iritsi zaigu eta horrek asko goibeltzen banau ere, aurrera pausu handi bat emateko aukera izango duzulakoan hartu dut joateko erabakia.

Badakit hau ez dela horrelako gauza bat esateko biderik egokiena, baina ez dut adorarik izan beste modu batean kontatzeko, beraz, hona hemen nire sentipenen berri.

Eskutitza ikustean zerbait txarra irakurriko zenuelakoan egongo zinen, baina guztiz bestelakoa da honen helburua.

Guztia ederra zen geure artean, inoiz ez ginen elkarrekin haserretzen. Gehien behar zenuen uneetan ondoan ninduzun eta nik gehien behar nuenetan ondoan zintudan. Inoiz arazorik ez zela egongo zirudien arren, une batez mugatzen zintudala konturatu nintzen. Hasieran zu lanera joaten zinen goizean, ni etxeaz arduratzen nintzelarik eta arratsak elkarrekin igarotzen genituen. Ondoren, zu lagun berriak egiten hasi zinen, eta haiek ez ziren nire “estiloko” lagunak. Lagunekin irtetea asko gustatzen zitzaizun eta haiekin ondo pasatu nahi zenuen, normala den bezala, baina nik ez nuen zuekin joateko gogorik izaten. Etxetik ni gabe joaten zinenean, niri min emango bazenit bezala sentitzen zinen, baina nik ez nuen inolako arazorik ikusten.

Bakoitzak bere bizitza nahi duen bezala antolatzeko eskubidea duela pentsatzen nuen. Eta pentsatzen dut. Hala ere, bakarrik ikusten ninduzunean nahigabetu egiten zinen. Lehendabizi larunbat batzuetan etxean geratzen hasi zinen eta lagunekin ondo pasatzeko esaten banizun ere, nirekin gustura zeundela esaten zenidan. Momentu bat iritsi zen non 80 urteko bikote baten moduan egoten baikin, larunbatero gauza berberak eginez, beti elkarrekin.

Pixkanaka konturatu nintzen zure bizitzara ni iristeak ekarri zituen ondorioez. Ia ez nuen ikusten hasieran ezagutu nuen pertsona hura. Guztiz aldatu zintuen ni zure ondoan egoteak.

Zugandik gehien gustatzen zaidan, algaraka hasten zarenean duzun zoriontasuna da, eta tamalez, aspaldian ez zaitut ikusi barre horrekin. Beti esan ohi da, adin ezberdintasunak ez duela arazo izan behar bikote erlazioetan, baina nire ustez guri arazo larriak sortu dizkigu. Nik zu bizitzen ari zaren aro guztiak pasatuak ditut, eta orain ez daukat guztiak berriz bizitzeko gogorik. Zu, ordea, etapa zoragarri hau galtzen ari zara nire erruz.

Sentitzen dut, baina ni ez naiz izango zure hegala moztuko dituen. Elkar asko maite badugu ere mugatzen zaitudala sentitzen baitut. Ez naiz zure bizitzako etapa bat zapuztearen konplize izango. Ez dizut momentu honetan nire erabakia ulertzea eskatu nahi, errespetatzea besterik ez.

Gainera ez dugu triste egoteko arrazoirik, inork ez baitu esan inoiz elkar ikusiko ez dugunik. Batzuetan, gehien maite duzun hori utzi egin behar izaten da guztien mesedetarako. Aro berri bat hasiera goaz eta nik bidaiatuz emango diot aro honi hasiera. Agian Frantzia aldera joko dut lehendabizi eta Europa osoa ikusi ondoren, Tailandia aldera joango naiz. Bisitatzen dudan leku guztietatik eskutitz bat bidaliko dizut. Asko maite zaitut.

Zuhaitz.”

1987ko urtarrilaren 29a

Eskutitza behin eta berriz irakurri dut. Hasieran oso gogorra gertatzen zitzaidan eskutitza nire esku artean edukitzea ere, baina pixkanaka, idatzitako guztia ulertuz noa. Etxean oso bakarrik sentitzen naiz oraindik baina horri aurre egiteko lagunekin askoz ere denbora gehiago pasatzen dut eta gainera jende berri asko ezagutu dut.

1987ko otsailaren 14a

Bigarren eskutitza dut eskuarte. Honako hau Parisetik dator eta horrela dio:

“Kaixo. Zer moduz guztia Euskal Herri aldean?

Ni oso ondo nago, baina etxeko janaria faltan botatzen dut. Hizkuntzarekin ere ez naiz oso abila baina bertakoekin komunikatzeko gai naiz eta ez dut aparteko arazorik izan.

Eiffel dorrera joan nintzen eta gailurretik Paris guztia ikus nezakeen. Une batez mundua gelditu zela pentsatu nuen bertan nengoenean. Idatziezadazu.

Zuhaitz.”

Eskutitz hau irakurtzea ez da tristea izan. Egia esan ikusi nuenean asko poztu nintzen eta berak esan bezalaxe, eskutitz hau idazten hasi nintzaion;

“Kaixo, Zuhaitz. Ikusten dut paregabe pasatzen ari zarela. Hemen guztia betiko moduan dago, baina zure falta sumatzen da. Orain dela gutxi, Aralarren izan nintzen lagunekin eta zuk Eiffel dorrean izandako sentipen bera izan nuen. Niretzat ere mundua gelditu egin zen. Ez ahaztu hurrengo herrialdetik berriz idaztea.”

1987ko ekainaren 12a

Zuhaitzen eskutitz mordoa jaso dut, ia 14 herrialde ezberdinetatik. Orain Tailandiara joateko asmoa duela esan dit eta asko poztu nau hori jakiteak, bere ametsa bertara bidaiatzea zen eta.

Ia 3 hilabete neramatzan etxean utzi zidan lehen eskutitz hura irakurri ezinik, baina gaur adore pixka bat bildu eta berriz irakurri dut. Oraingoan, guztiz bestelakoa izan da irakurtzean sentitu dudana. Tristura baina poza. Eskutitzean, bere erabakia momentu horretan ulertzea ez zidala eskatzen irakurri dudanean, jabetu naiz joateko erabakia egokia izan zela guztiz. Ez nintzen konturatzen mugatzen ninduela, baina orain gai naiz guztia ulertzeko. Pertsona bat benetan maite baduzu, pertsona hori aske ikusi nahi duzu eta hura aske izateko bere bizitzatik aldendu behar baduzu, halaxe egingo duzu.

Galera guztiek sortzen digute ezinegona, tristura, malenkonia... Baina esperantza beti hor dago. Bidean zerbait uzten dugunean, beti dakigu zer galtzen dugun baina ia inoiz ez galeraren ondorioz zer irabaz dezakegun.